



ETXALARKO UDALA

Andutzeta, 15 - 2. solairua - 31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tel.: 948-635005 - Fax: 948-635232
e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

ETXALARKO IGERILEKUETAN SOROSLE LANETAN ARITZEKO DEIALDIA 2019ko DENBORALDIA

1.- Etxalarko Udalak bi sorosle kontratatu nahi ditu igerilekuen 2019ko denboraldirako, sorosle eta bertze lan batzuk egiteko.

2.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak hauexek dira:

- Adinez nagusia izatea.
- Sorosle lanetan aritzeko titulua (maiatzaren 19ko 123/2003 Foru Dekretuan, maiatzaren 2ko 20/2006 Foru Dekretuan eta abuztuaren 31ko 176/2011 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat eginik).
- Euskara menperatzea.
- Egin beharreko lanetarako gaitasuna izatea.
- Administrazio publikoaren edozein lanpostutarako ezgaiturik ez egotea eta hartatik bereizia ez izatea.

3.- Deialdian parte hartzeko eskabideak udaleko bandoan adierazitako epean aurkeztuko dira udal idazkaritzan, agiri hauek erantsirik:

- Curriculuma
- Lan eskarmentua
- Sorosle titulua
- Erantzunkizunpeko adierazpena (eredua behean)

4.- Hilabeteko **lansari garbia 1.146,47 eurokoa** izanen da. Kontratatuei hileroko ordainsarrietan legezko atxikipenak eginen zaizkie. Gizarte Segurantzako Araubide orokorraren arabera, dagokien kotizazioa ordainduko da.

Esleipendunak **100,00 euroko fidantza** jarriko du kontratua sinatzean; hura bukatzean itzuliko zaio, betiere kontratuak iraun duen bitartean ez bada gora beherarik izan; halaber, kontratua esleitu ondotik, ekainaren 15etik aitzin uko egiten bazaio, fidantza ez da itzuliko.

5.- Lan kontratuaren iraupena:

- Hasiera: 2019ko ekainaren 21ean (igerilekuak irekiko dira ekainaren 22an).
- Bukaera: 2019ko abuztuaren 26an (igerilekuak itxiko dira abuztuaren 25ean).

Igerilekuen denboraldian egin beharreko ordu-kopurua kontuan harturik (567 ordu / 9 ordu egunean), bi sorosleen artean adostuko da bakoitzak egin beharreko lanaldia (txandak, egunak, orduak, etab.), hori bai, igerilekuetan beti sorosle bat dagoela bermaturik.

Eguraldiaren arabera, Udalak luzatu ahalko du igerilekuak irekita egoteko aldia, eta, horren baitan, kontratua ere luzatu ahalko da.

6.- Egin beharreko lanak hauexek dira:

- Instalazioak goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte irekiak edukitzea, jai egunak barne, sorosle lanetan aritzearren.
- Uraren inguruko betebeharrak betetzea, horien artean hauexek: uraren kalitatea zaindu, indarrean diren aginduen arabera, eta kontrol ofizialeko liburuan egunero egindako analisien emaitzak jaso, hau ere indarrean den araudiaren arabera.
- Instalazioen kanpoko mantenimendu eta garbiketaz arduratzea, bertzeak bertze: lorategiko belarra moztu, igerilekuen inguruko zonaldea garbitu (paperak bildu, etab.), paperontziak hustu.
- Udal igerilekuak ireki aitzinetik kontratatuek instalazioak behar bezala jarri behar dituzte, eta denboraldia bukatutakoan erabiltzeko modu egokian utzi.
- Sorosleek hala nahi izanez gero, igeriketa ikastaroak eman ahalko dituzte. Kasu horietan, ikastaroen prezioa sorosleek erabakiko dute, eta irabaziak beraientzat izanen dira.

Aipatutako lanei dagokienez, Udalak edo honen ordezkariak ezartzen dituen jarraibideak beti kontutan hartuko dira.

Igerilekuen funtzionamenduari buruzko lege-araudi guztia bete behar dute.

7.- Indarrean den legerian ezarritako kasuez gain, Udalak kontratua desegiten ahal du, bere ustez hitzartutako baldintzak betetzen ez badira edo zerbitzua txarra bada, eta kontratatuek ez dute inolako kalteordainetarako eskubiderik izanen.

8.- Udalak igerilekua erabili ahalko du iruditzen zaion edozein jardueratarako, hala bada.

9.- Baldintza-plegu honek sor dezakeen edozein zalantza Etxalarko Udalak erabakiko du.

Etxalarren, 2019ko maiatzaren 9an.

Alkatea

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak:

IFZ:

Helbidea:

Herria:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Honen bidez ADIERAZI NAHI DUT:

- Etxalarko igerilekuetan sorosleak kontratatzeko deialdiaren berri izanik, lan hori egiteko baldintzak betetzen ditut eta ez nago administrazio publikoaren edozein lanpostutarako ezgaiturik eta hartatik berezia.

Etxalarren, ____/_____/__(e)an.

Sinadura: